

TABAKOA BEAR-LEKUAN?

Eraikuntzek gizakietan gaixotasunak eragin leikeez, eraikuntzok gaixorik egon ezker, jakina.

Badira eragile asko eta asko eraikuntzak gaixotu leikeezanak. Orreotariko batzuk, berbarako, ingurugiroaren kutsatzaileak dira. Kutsatzaile onetan batez be kalte-kaltegarria da tabakoaren kea.

INSL erakundeak kaleratutako txostenaren arabera, tabakoaren keak 300etik gora osogai kaltegarri daukaz. Ke orrek tokiaren auts kontzentrazioa aldatuten dau.

Ganera, aize egokitua egon ezker, ke ori eraikuntza osoan zabalduko da.

Ori guztiori dala-eta, INSL erakundeak erretzaile eta erretzaile ez diranak dagozan lekuan erreten ez dabenen eskubideak bete bear dirala adierazo dau, bein eta barriz. Langiro kutsatuak saiestu bear dira errotik.

Droga-menpekotasunean jakituna dan Juan Carlos Melero psikologoaren berbetan, bearginen osasunak garrantzi andiagoa euki bearko leuke enpresentzako. Gauza jakina da, erretzaileak diran bearginek gaixotasun-baja geiago daukena besteek baino.

Beste alde batetik, erreteagaitik gaixotu dana osatutea ez da bape merkea izaten.

Ganera, egia da erretzeile dan bearginaren errendimendua apalagoa dana, denpora luzeagoan gaixorik egoten dalako. Alan bada, produktibitatea be txikerra.

WHO erakundeak dinoanetik, tabako-ke barik bear egitea osasuntsuagoa ez eze, seguruagoa be bada.

Erretzaileen ondoan bear egiten dabeneke (erretzeile beartuak) erretzaileen keak eragindako gaixotasunek jota egoteko eukera andi be andiak daukez: begietan azkurea, sudur zein samako narritadurea, bronkitis kronikoa, alborengoa, asmea, birikietako disfuntzioak, gaixotasun koronarioa eta biziena.

Bai, eragin be, erreten ez dabenen artean be biziena eragin leike tabakoak. Alantxe dakar, bada, EEBB eta Gobernuko Osasun Idazkaritzek bertako Osagileen Alkartegaz batera argitaratutako txostenak. Txostena ikerketa luzearen ondorioa izan da.

Bertan egindako autopsietan argi lotu da erretzaile beartuak tabakoak eragindako bizienak jota il leitekezana.

Zigarroaren kea bera artuten dabeneke birikietako geruzen zeluletan lotuten dana argiro erakutsi dau ikerketa orrek.

British Medical Journal aldizkariak argitaratutako txosten bitan argi eta garbi agertu da, erretzaile beartuak birikietako bizienak edo gaixotasun koronarioak jota egoteko aukerak andiak dirana, euron bizitza osoan bein be agora zigarrorik eroan izan ez arren.

Egin be, erretzaile beartuak goian aitaturako gaixotasunek jota egoteko aukerak %26an egiten dau gora. Alandaze, erretzaileen ondoan bear egin edo bizitea osasunarentzako arrisku-arriskugarria da.

Zenbat eta ondoko erretzaileek zigarro geiago erre, zenbat eta erretzaileen ondoan urte geiago emon, aibat eta andiagoa izango da arriskua.

Britainia Andiko Osagileen Alkartearen esanetan, milaka erretzaile beartu gaixotu edo ilten dira urtero munduan zear. Alperreko eriotzak, saiestu leitekezan eriotzak.

Orretarako, baina, neurri prebentiboak artu bear dira.

Bearlekuan erre egitea? Ez mezedez. Eskerrik asko.

INIAKI MARTIARTU

Insl= Instituto Nacional de la Salud Laboral

WHO= World Health Organisation

**ZUGATZ BAT SARTU DAUANARENA
EZ DA ALPERREKO BIZITZEA**

DANTE